

Behin betiko erabakia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordearena, ONCE Fundazioaren-CRUEren praktika-beken programaren IX deialdian (2024-2025)

UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearen urriaren 22ko Erabakiaren bidez, ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programaren deialdia argitaratu zen, 2024-2025 ikasturtean desgaitasuna duten ikasleek enpresetan praktika ordainduak egin ditzaten.

Desgaitasuna duten ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko aukera ematea da deialdiaren helburua, haien enplegarritasuna eta etorkizun profesionala hobetu dadin bultzatzeko. Praktiketarako 3 plaza eskaini zaizkie UPV/EHUUn graduiko nahiz graduondoko titulazioren batean edo master ofizialen batean matrikulatuta dauden eta legez % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua duten ikasleei (UPV/EHUUn Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegiaren 3. artikuluan jasotakoari jarraiki). Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatu da programa, FSE+ 2021-2027 Inklusio Programaren esparruan.

UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordearen 2024ko abenduaren 13ko Erabakiaren bitartez, desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programaren deialdian onartu eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. UPV/EHUko Ebaluazio Batzordeak proposatuta, eta aurkeztutako dokumentazioan identifikatutako akatsak zuzentzeko epea bukatu ondoren, honako hau erabaki da:

ERABAKIA

1. ONCE Fundazioaren-CRUERen praktiketarako beka programan onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzea bazter uzteko arrazoiak barne (I. Eranskina).

2. Erabaki hau eta bere eranskina argitaratzea UPV/EHUk hartarako sortutako webgunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/once-crue-bekendeialdia>), bertan jasota ONCE Fundazioaren-CRUERen praktiketarako beka programan onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

3. Onartutako eta baztertutakoen zerrenda onartzen duen erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zehaztutakoaren arabera.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontaktzen hasita. Berraztertze errekurtsoa aurkezten bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, lehenengoaren ustezko edo berariazko ebazpena izan arte.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 9an



Digitally signed by
34097560Z FERNANDO
TAPIA (R: Q4818001B)
Date: 2025.01.09
09:38:37 +01'00'

Fernando Tapia Alberdi

UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la UPV/EHU

1. ERANSKINA

- Bekarako onartutako ikasleak:

NAN zk.:
72505779G
79128934X
29617636F

- Erreserban onartutako ikasleak, puntuazio ordenaren arabera:

NAN zk.:
Y7805473T
Y6575703V
79243990C
16093321Z
78914712X
72603322G

- Baztertutako ikasleak:

NAN zk.:	Arrazoia
73275857L	Dokumentazio falta
79297744T	Dokumentazio falta
20182333V	Eranskin I falta da
44638057W	Eranskin I falta da